

SEGMENTAZIOA:

Merkatuaren segmentazioak bezeroak definitzea du helburu, hauek baitira edozein negozio ereduren erdigune. Gure produktuaren kasuan edukiko ditugun bezeroak ikasle eta pisuen jabeak izango dira. Izan ere, ikasleak izango dira gure proiektuaren funtsa, beraiek izango baitira gure produktua aurrera eraman ahal izateko pertsona bakarrak.

Gure proiektua ikasleak pisua eta pisukideak aurkitzeko webgune bat sortzea da. Nahiz eta ikasleei zuzenduta dagoen gehienbat, edozeinek alokatu ahalko du alokagai dauden pisuak. Ikasleei zuzenduta egotearen arrazoia webgunean bertan pisukidea aurkitzeko aukera dagoela da.

Bi helburu dauzkagu. Lehenengoa, pisuak aurkitzea eta webgunean eskeintzea. Horretarako pisuen jabeek webgunean iragarki bat jarri beharko dute. Modu honetara, bezero moduan pisu horien jabeak izango ditugu. Bigarrenik, herrialde edo hiri berdinerak ikastera joango direnak batzea edo batzeko eta kontaktuan jartzea da. Aurretik aipaturiko bezala, arrazoi hori da gehienbat ikasleei zuzenduta egotea.

Laburbilduz, bitartekari lanak egiten ditugunez, bi bezero ditugu eta horiei zuzenduta dago gure ideia. Alde batetik, alokatzen duen jabea eta bestetik alokatzea nahi duena.